

GIZARTE ZERBITZUEN MUNGIALDE MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUAK

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 44. artikuluan xedatutakoaren babesean, Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea sortu dute Mungiako, Bakioko, Laukizko, Gamiz-Fikako, Meñakako eta Arrietako udalek, Estatutu hauen 7. artikuluan zehaztutako helburuetarako. Mungialdeko eskualdeko gainerako udalerriek aukera izango dute Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitatean sartzeko, hala nahi badute, Estatutu hauen 49. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozeduraren arabera.

2. artikulua.

1. Mankomunitateak bere nortasun juridikoa du; ez dago erakunde mankomunatuene mende; gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa du, eta bere ondarea du.
2. Ondorioz, legeen, erregelamenduen eta Estatutu hauen arabera, Mankomunitateak ahalmena izango du edozein motatako ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, edukitzeko, eskatzeko, trukatzeko eta besterentzeko; kontratuak egiteko eta betebeharrak bere gain hartzeko; akzioak baliatzeko; eta errekurtsuak jartzeko.

3. artikulua.

“Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitatea” izango du izena.

4. artikulua.

Mankomunitateak Mungian izango du egoitza, udaletxean.

5. artikulua.

1. Estatutu hauek eta hauen garapenerako ezarritako xedapenek arautuko dute Mankomunitatea.
2. Osagarri gisa aplikatuko dira Toki Araubidearen legedia eta 1995eko martxoaren 30eko 3/95 Foru Araua, Bizkaiko udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituenak.

6. artikulua.

Mankomunitateak, unean-unean, helburuak hobeto betetzeko lankidetzaharremanak egin ahal izango ditu, bai Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Departamentuarekin, bai beste edozein erakunde publiko edo pribaturekin.

7. artikulua.

Mankomunitateak zeregin hauek izango ditu gutxienez:

1. Behar diren baliabideak sustatzea herritar guztiei informazioa eta aholkularitza emateko, beren gizarte-eskubideei eta eskubide horiek benetan erabili ahal izateko bitartekoei buruz.
2. Familiari babesa eta laguntza ematea sustatzea, berariazko orientazio-, aholkularitza- eta terapia-zerbitzuen bidez.
3. Haurren eta gazteen ongizatea sustatzea, bereziki ez badute familia-giro egokirik, gizartera erabat molda daitezten.
4. Hirugarren adinekoei laguntzea, adinekoak beren gizarte-ingurunean geratzeko, haien garapen soziokulturala sustatzeko eta, hala badagokio, haiei egoitza-giro egokia emateko helburua duten zerbitzuen bidez.
5. Desgaitasuna duten pertsonak hezkuntza-, lan- eta gizarte-arloetan ahalik eta gehien integra daitezten sustatzea, eta, hala badagokio, haien gaitasunak garatzea sustatzea zerbitzu berezien bitartez.
6. Mendekotasun-arazoak dituzten pertsonen tratamendua eta gizarteratzea babestea eta bultzatzea ekintza egokien eta prebentzio-zerbitzuen bitartez.
7. Delinkuentziaren prebentzioa eta tratamendua eta delinkuenteen gizarteratzea babestea.
8. Gizarte-talde bakoitzaren kasurako, marjinazio-arrazoia prebenitzea eta deuseztatzea berariazko zerbitzuen bidez.
9. Eta, oro har, organismo ofizialek sustatzen dituzten gizarte-zerbitzu guztiak.
10. Eskatzen zaizkion edo bere ekimenez formulatzea erabakitzen duen ikerketak, estatistika-txostenak eta gizarte-zerbitzuei lotutako bestelako jarduerak egitea.
11. Lankidetzakontratuak egitea erakunde pribatuekin.
12. Bere helburuetarako behar den eta egoki den guztia egitea.

8. artikulua.

Udalen ordean Mankomunitateak emango ditu zerbitzu mankomunatuak; ondorioz, udal mankomunatuak lotuta geratuko dira Mankomunitateak bere eskumen-esparruan hartutako konpromisoak.

II. KAPITULUA. ARAUBIDE ORGANIKOA

1. atala. Gobernu- eta administrazio-organoak.

9. artikulua.

Hauek dira Mankomunitatearen gobernu- eta administrazio-organoak:

- a) Bilkura Orokorra.
- b) Batzorde Eragilea.
- c) Lehendakaria.

10. artikulua.

Batzar Nagusia da Mankomunitatearen organo gorena eta haren ordezkari-organoa.

11. artikulua.

1. Bilkura Orokorra hamar kidek osatuko dute, honela: Bakioko Udalaren ordezkari bat, Laukizko Udalaren ordezkari bat, Gamiz-Fikako Udalaren ordezkari bat, Meñakako Udalaren ordezkari bat, Arrietako Udalaren ordezkari bat eta Mungiako Udalaren bost ordezkari.
2. Toki-erakunde mankomunatuak beren osoko bilkuretan aukeratuko dituzte ordezkariak, zinegotzien artetik.

12. artikulua.

1. Kideen agintaldiak lau urte iraungo du, eta, nolana ere, dagokion korporazioa berritzearekin batera azkenduko da.
2. Kideek beren kargua utziko dute izendatuak izan zirenean zuten ordezkari-izaera galtzen dutenean.
3. Udal mankomunatuak atzera bota dezakete beren ordezkarien izendapena beren agintaldia amaitu baino lehen, aldez aurretik arrazoa justifikatuta.
4. Nolanahi ere, udalek kideak berritu ahal izan ditzaten, erabaki bat hartu beharko da xede horretarako berariaz deitutako ezohiko bilkuran, legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin.
5. Bete gabeko kide-karguak dagokion hautaketa partzialaren bidez beteko dira agintaldiari geratzen zaion denborarako.

2. atala. Batzorde Eragilea.

13. artikulua.

1. Batzorde Eragilea da organismoaren gobernu- eta administrazio-organoa iraunkorra.
2. Autonomia osoa izango du bere zereginak betetzean.

14. artikulua.

Batzorde Eragilea Mankomunitateko lehendakariak eta zazpi kidek osatuko dute: Mungiako Udalaren bi ordezkari, hiruna botorekin, eta gainerako udaletako ordezkari bana, boto banarekin.

15. artikulua.

1. Batzorde Eragilea osatzen duten pertsona guztiek Batzar Nagusiko kide izan behar dute aldi berean.
2. Batzar Nagusiko kideak izendatzean, erakunde bakoitzak zehaztuko du kide horietako zeinek ordezkatu behar duen Batzar Nagusia Batzorde Eragilean.
3. Batzorde Eragilea osatzen duten pertsonak eta Bilkura Orokorra osatzen dutenek agintaldi bera izango dute beti.

3. atala. Lehendakaria

16. artikulua.

1. Mankomunitateko lehendakaria Bilkura Orokorrak izendatuko du bere kideen artetik, sekretupeko eta zuzeneko zenbaketa bidez.
2. Lehenengo bi bozketetan, gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da, eta, bi bozketa horietan ez bada gehiengo osorik lortzen, nahikoa izango da gehiengo erlatiboaren aldeko botoa.

17. artikulua.

1. Lehendakariaren karguak lau urte iraungo du.
2. Lehendakaria kargutik ken daiteke Bilkura Orokorrak hala adosten badu xede horretarako berariaz deitutako ezohiko bilkuran, Estatutu hauen 11. artikuluan zehaztutako kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin.

18. artikulua.

1. Batzar Nagusiko kideen artetik, lehendakariak bi lehendakariorde izendatuko ditu: lehendakariorde lehena eta bigarrena.
2. Lehendakariordeek, beren ordenan, lehendakaria ordeztuko dute hura bertan ez badago, haren kargua hutsik badago, gaixo badago edo ezin badu.
3. Lehendakariak eskuordetzan eman diezazkieke lehendakariordeei Estatutu hauen 21. artikuluan zehaztutako zeregin batzuk.

4. atala. Mankomunitateko organismoen esleipenak.

19. artikulua.

Bilkura Orokorri dagokio:

1. Bilkura Orokorra bera eratzea.
2. Erakunde mankomunatuaren kopurua handitzea, Estatutu hauen 49. artikulua arabera.
3. Mankomunitatea desegiteko proposamena onestea, Estatutu hauen 52. artikulua arabera.
4. Goi-zuzendaritza, eta organismoaren funtzionamenduaren ildo nagusiak zehaztea.
5. Jarduera-planak onestea, aldatzea eta berrikustea; zehazki, finantzen plana, obren plana eta eskuratzeen plana.
6. Mankomunitatearen zerbitzu administratiboak eta teknikoak antolatzea.
7. Ordenantza eta erregelamendu orokorrak, barne-araubidearenak, langileenak eta zerbitzuarenak onestea.
8. Obra-proiektuak onestea, haiek kontrata bidez gauzatzeko aurrekontua ehun eta berrogeita hamar mila eurotik gorakoa bada.
9. Obrak eta zerbitzu-emateak kontratatzea, haien aurrekontua 150.000 eurotik gorakoa bada, edo, txikiagoa izanik, Mankomunitatearen aurrekontuetan esleitutakoak baino kreditu handiagoak behar badituzte; eta oinarritzat hartu behar diren klausula administratibo, ekonomiko eta fakultatiboen baldintza-orriak onestea.
10. Mankomunitatearen ondasunak eta eskubideak eskuratzeari, besterentzeari, zergapetzeari eta alokatzeari buruzko espedienteak ebaztea, baldin eta haien zenbatekoa bere aurrekontuaren % 25 baino handiagoa bada, edo, txikiagoa izanik, kontratuaren iraupena sei urtetik gorakoa bada.
11. Organismoaren aurrekontua, balantzea, emaitza-kontua, jarduera-memoria eta ondasunen inbentarioa onestea.
12. Kreditu-eragiketak formalizatzea, kredituak aitortzea eta ezereztea, kontu-azterlaritza eta kita- eta itxaronaldi-emateak formalizatzea.
13. Mankomunitatearen plantilla orokorra eta organikoa eta langileen mailakatzea zehaztea, eta langile horiek izendatzeko hautaketa-probek izan behar dituzten oinarriak zehaztea.
14. Langileen ordainsariak zehaztea, indarrean dagoen legediaren arabera.
15. Batzorde Eragileak eta lehendakariak bere esku uzten duten gai oro ebaztea.
16. Mankomunitateko langileak zerbitzutik kentzea edo kaleratzea.
17. Erabakia hartzea Mankomunitateari demanda jarri zaion auzietan pertsonatzeko eta edozein motatako akzioak eta errekurtsioak baliatzeko gai zibiletan, gai penaletan, administrazioarekiko auzietan, laneko gaitan, gai administratiboetan eta judizioz kanpokoetan, hargatik eragotzi gabe lehendakariak bere ahalmenak erabiltzea urgentzia-kasuetan.

20. artikulua.

Batzorde Eragileari dagokio:

1. Batzordea bera eratzea.
2. Mankomunitatearen jarduera antolatzea, planifikatzea, zuzentzea, koordinatzea, administratzea eta ikuskatzea, hargatik eragotzi gabe Bilkura Orokorrak bere ahalmenak baliatzea.
3. Mankomunitatearen jardueren programa egitea.
4. Bilkura Orokorraren gidalerroak garatzea.
5. Estatutuak aldatzeko proposamena egitea.
6. Mankomunitatea desegiteko proposamena egitea.
7. Bilkura Orokorraren esku utzi behar diren gaien txostena egitea eta haiek proposatzea.
8. Gai zehatzak eta garrantzitsuak aztertzeko batzorde eta lantalde tekniko bereziak eratzea.
9. Langileen izendapena, bete gabeko postuak, lekualdaketak, egoera-aitorpenak eta erretiroak zehaztea.
10. Mankomunitateko langileei zuzenketak egitea, salbu eta ohartarazpena, hori lehendakariari baitagokio, eta zerbitzutik kentzea edo kaleratzea, hori Bilkura Orokorrari baitagokio.
11. Obra-proiektuak onestea, baldin eta haiek kontrata bidez gauzatzeko aurrekontua ez bada ehun eta berrogeita hamar mila eurotik gorakoa.
12. Obrak eta zerbitzu-emateak kontratatzea, baldin eta haien aurrekontua ez bada 30.000 eurotik gorakoa; eta oinarritzat hartu beharreko klausula administratibo, ekonomiko eta fakultatiboen baldintza-orriak onestea.
13. Mankomunitatearen ondarea administratzea.
14. Ondasun higiezinak eskuratzea.
15. Mankomunitatearen ondasunak eta eskubideak eskuratzeari, besterentzeari, trukatzeari, zergapetzeari, alokatzeari eta, oro har, haien gaineko xedapen-egintza orori buruzko espedienteak ebaztea, baldin eta haien zenbatekoa ez bada hogeita hamar mila eurotik gorakoa.
16. Mankomunitatea ekonomikoki kudeatzea onartutako aurrekontuen eta programen arabera eta haien gauzatze-oinarrien arabera, ordainketak agintzeko ahalmenak izan ezik.

17. Bilkura Orokorrari urteko lehenengo hiruhilekoan aurkeztea, berak proposaturik hark onets ditzan, aurreko ekitaldiko balantzea, emaitza-kontua, jarduera-memoria eta ondasunen inbentarioa.

18. Mankomunitatearen aurrekontua jakinaraztea, eta, urteko laugarren hiruhilekoan eta berak proposaturik, Bilkura Orokorrari aurkeztea, hark onets dezan.

19. Egoki deritzon guztia egitea Mankomunitatearen helburuak hobeto garatzeko eta betetzeko.

21. artikulua.

Mankomunitateko lehendakariari dagokio:

1. Mankomunitatea judizialki eta judizioz kanpo ordezkatzeko edozein motatako negozio juridikoetan, eta ordezkari hori betetzeko ahalmenak eta aginduak ematea.
2. Bilkura Orokorraren edo Batzorde Eragilearen berariazko baimena izanik —kasuen arabera—, kontratuak egitea Mankomunitatearen izenean, eta eskriturak, dokumentuak eta polizak sinatzea bere izenean edo eskuordetze bidez.
3. Bilkura Orokorraren eta Batzorde Eragilearen bilkuretara deitzea, haietako gaitzerrenda finkatzea, bilkura horien buru izatea, haiek irekitzea, etetea eta bukatutzat ematea; Bilkura Orokorraren eta Batzorde Eragilearen deliberazioak zuzentzea; eta berdinketak erabakitzea kalitateko botoarekin.
4. Halaber, eskudantzia berberekin, Mankomunitatearen barruan eratutako batzordeen buru izatea, han izanez gero.
5. Bere sinadurarekin, izapidezkoak ez diren ekintzak baimentzea, eta Bilkura Orokorraren eta Batzorde Eragilearen eta, hala badagokio, buru den gainerako batzordeen aktak eta haietan lortutako akordioen ziurtagiriak ontzat ematea.
6. Legeak, Estatutu hauek eta Mankomunitatearen erregelamenduak betetzea eta betearaztea.
7. Bilkura Orokorraren eta Batzorde Eragilearen akordioak argitaratzea, gauzatzea eta betearaztea.
8. Mankomunitatea zuzentzea, haren jarduerak koordinatzea eta bultzatzea, haren garapena sustatzea, eta haren lanak eta zerbitzuak egitea.
9. Mankomunitatearen lokalak, instalazioak eta zerbitzuak ikuskatzea, zaintzea eta gainbegiratzea.
10. Mankomunitateko gaiak kudeatzea.
11. Mankomunitatearen ondarea zaintzea, eta neurriak hartzea ondare hori kontserbatzeko, babesteko, haren inbentarioa egiteko, hura erregistratzeko, administratzeko, erabiltzeko, baliatzeko eta defendatzeko.
12. Langile guztiei espedientea irekitzea, haiek prebentzioz kargugabetzea, eta ohartarazpen-zigorra ezartzea.
13. Erabakia hartzea Mankomunitateari demanda jartzen zaion auzietan pertsonatzeko eta edozein motatako ekintzak eta errekurtsioak baliatzeko gai zibiletan, gai penaletan, administrazioarekiko auzietan eta judizioz kanpokoetan, urgentziatzeko kasua bada eta

atzeratuz gero Mankomunitatearen interesentzako kaltegarria izan badaiteke; horren berri eman behar dio Batzorde Eragileari hurrengo bileran.

14. Aurrekontu-proiektua egitea.
15. Ordainketak agintzea esleitutako kredituen arabera eta Bilkura Orokorraren eta Batzorde Eragilearen erabakien arabera.
16. Gastuak antolatzea, aurrekontu-mugen barruan, gastu finkoak eta ohikoak badira, eta halaber ohiko aurrekontuak gauzatzeko oinarrietan finkatuta bada gastuaren zenbatekoa.
17. Kontuak ematea.
18. Mankomunitatearen ondasunen balantzeak, kontuak, memoria eta inbentarioa sinatzea ardura duten funtzionarioekin batera.
19. Ikuskatzailearen eta gordailuzainaren sinadurekin, kontu korronteak eta kreditu-kontuak irekitzea eta ezeztatzea, haietatik funtsak hartzea, eta merkataritzako dokumentuak eta kreditu-dokumentuak igortzea, onestea, negoziatzea, protestatzea eta berritzea.
20. Urgentzia-kasuan, behar diren behin-behineko ebazpenak egitea, eta horren berri ematea organo eskudunari, egiten duen hurrengo bilkuran erabaki dezan.
21. Mankomunitateko gainerako organoei berariaz esleitu ez zaizkien gaiak aztertzea, prestatzea eta ikertzea.

5. atala. Mankomunitateko organoen funtzionamendua.

22. artikulua.

1. Mankomunitateko Bilkura Orokorra ohiko bilkuran bilduko da nahitaez urtean bi aldiz: lehenengo hiruhilekoan eta azkenekoan.
2. Lehenengo hiruhilekoaren barruko bilkuran, Batzarrak nahitaez aztertu eta ebatzi behar du balantzeari, emaitza-kontuari, aurreko ekitaldiko jarduera-memoriari edo ondasunen inbentarioari buruz, eta, azken hiruhilekoan, hurrengo ekitaldirako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuari buruz.

23. artikulua.

1. Mankomunitatearen Bilkura Orokorrak ezohiko bilkura egingo du baldin eta:
 - a. Lehendakariak berak hala erabakitzen badu.
 - b. Hura osatzen dutenen herenek eskatzen badute, Estatutuen 11. artikulua arabera.
 - c. Batzorde Eragileak eskatzen badu.
2. Azken bi kasuetan, eskaera egin eta lau eguneko epean egin behar du bilkurarako deia lehendakariak, eta bilkura ezin izango da handik bi hilabete baino gehiagora egin.

24. artikulua.

1. Batzorde Eragileak ohiko bilkuran bildu beharko du nahitaez hilean behin, gutxienez.
2. Batzorde Eragileak ezohiko bilkura egingo du baldin eta:
 - a) Lehendakariak berak hala erabakitzen badu.
 - b) Hura osatzen dutenen herenek eskatzen badute, Estatutu hauen 14. artikuluaaren arabera.
3. Azken kasuan, eskaera egin eta lau eguneko epean egin behar du bilkurarako deia lehendakariak, eta bilkura ezin izango da handik bi hilabete baino gehiagora egin.

25. artikulua.

1. Bilkura Orokorraren eta Batzorde Eragilearen bilkurak, ohikoak izan edo ezohikoak izan, Mankomunitatearen egoitzan egingo dira normalean.
2. Beste lekuren batean ere egin daitezke, horretarako arrazoiak baldin badaude eta lehendakariak ontzat ematen baditu.

26. artikulua.

1. Mankomunitateko lehendakariari dagokio Batzar Nagusirako eta Batzorde Eragilerako deialdiak egitea eta Batzorde Eragilearen gai-zerrendak finkatzea.
2. Baterako zein besterako, gutxienez bi eguneko aurrerapenarekin egin behar da deialdia, eta jakinarazi.
3. Deialdia egin ondoren, kideek eskura izango dituzte espedienteak eta jorratu beharreko gaiak horretarako egokitutako toki batean.

27. artikulua.

1. Bilkuretara joatea nahitaezkoa da, salbuespen hauekin: ezinbestea, oztopo handi bat izatea, bertan ez egotea, gaixo egotea edo arrazoi justifikatua izatea.
2. Bilkurara ez joatekotan, behar den aurrerapenarekin jakinarazi behar zaio lehendakariari, baita ez joatearen arrazoiak ere.
3. Kide batek justifikatu gabe huts egiten badu ondoz ondoko bi bilkuratara edo txandakako lau bilkuratara urtebetean, Mankomunitateko lehendakariak enkaitze-proposamen bat egingo du, eta kidea izendatu duen erakunde mankomunatuari aurkeztuko dio.

28. artikulua.

Bilkura Orokorraren eta Batzorde Eragilearen eraketa baliozkoa izan dadin behar den bertaratzeko quoruma Estatutu hauen 11. eta 14. artikuluetan hurrenez hurren zehaztutako kide-kopuruaren gehiengo osoa izango da lehenengo deialdian.

29. artikulua.

1. Bigarren deialdiko bilkurak lehenengorako jarri zena baino bi egun geroago egingo dira, ordu berean.
2. Bilkura Orokorraren eraketa baliozkoa izan dadin bigarren deialdian, bost kidek edo gehiagok bertaratu behar dute; nolana ere, erakunde mankomunatu bakoitzeko kide batek bertaratu behar du gutxienez.

30. artikulua.

Ezin izango da bilkurarik egin lehendakaria eta idazkaria bertan ez badaude, edo legez edo Estatutu hauen edo barne-erregelamenduaren arabera haien karguan ordezten dituztenak bertan ez badaude.

31. artikulua.

Debekatuta dago botoa eskuordetzea.

32. artikulua.

Izatezko kopuruaren bi herenen aldeko botoa beharko da, eta betiere Batzar Nagusiko kideen gehiengo osoarena, gai hauei buruzko akordioak baliozkoak izan daitezen:

- 1.- Estatutu hauen 19. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan adierazitakoak.
- 2.- Mankomunitatea eratzerako orduan aurreikusi ez ziren kargak hartzea.
- 3.- Aurreikuspen- eta erreserba-funtsak ezartzea.

33. artikulua.

1. Baliogabeak izango dira ezohiko bilkuretan gai-zerrendan sartu gabeko gaietarako buruz hartutako akordioak.
2. Baliogabeak izango dira, orobat, ohiko bilkuretan gai-zerrendan sartu gabeko gaietarako buruz hartutakoak, baldin eta ez badago bertan Bilkura Orokorra edo Batzorde Eragilea osatzen dutenen gehiengo osoa, eta gaiaren urgentzia ez badu gehiengo sinplearen aldeko botoak aitortzen; betiere, erakunde mankomunatu bakoitzeko kide batek bertan egon behar du gutxienez.

III. KAPITULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

34. artikulua.

Mankomunitateko gobernu- eta administrazio-organoei Toki Araubidearen legediaren arauetara egokituko dute beren jarduerak, eta, horren osagarri gisa, Prozedura Administrazioaren Legearenetara.

35. artikulua.

Bilkura Orokorraren eta Batzorde Eragilearen akordioek eta lehendakariaren ebazpenek amaiera emango diote bide administratiboari.

36. artikulua.

Mankomunitateko organoen erabakiak eta ebazpenak betearazleak izango dira berehala, goragoko oniritzia edo baimena behar den kasuetan izan ezik.

37. artikulua.

Mankomunitateak beharrezkotzat jotzen dituen lanpostu guztiak sortu ahal izango ditu Gizarte Zerbitzuek Mungialdeko eskualdean bete behar dituzten zereginak egiteko. Langileak izan daitezke funtzionarioak edo izan daitezke lan-kontratudunak.

Lanpostu horiek betetzean, kontuan izan behar da Tokiko Funtzio Publikoan sartzeari aplikatu behar zaion lege-araudia betetzen dela.

38. artikulua.

1. Idazkari-ikuskatzailearen figura sortzen da, eta lanpostu horretarako egokia den eta Mankomunitateak kontratatzen duen pertsonak beteko du.

Lanpostua sortzen ez den bitartean edo aplikatu beharreko lege-araudia —aurreko artikuluan adierazitakoa— betez lanpostua esleitzen ez den bitartean, Bakio, Laukiz, Gamiz-Fika, Meñaka, Arrieta eta Mungiako udaletan kargu hori betetzen duten pertsonak jardungo dute lanpostuan, ordena horretan, edo haren legezko ordezkariak edo eginkizun horretarako eskuordetzen duenak.

2. Kargu horiek urtero txandakatuko dira automatikoki.

39. artikulua.

Mankomunitateko idazkari-ikuskatzailea Batzar Nagusiko eta Batzorde Eragileko idazkaria ere izango da. Hitza duen baina botorik ez duen kidea izango da, eta zeregin hauek egingo ditu:

1. Lehendakariari eta Batzarrei jakinaraztea eta aholkua ematea Estatutuen, ordenantzen eta indarrean dagoen legediaren arabera hartu behar diren ebazpenei buruz.
2. Mankomunitatearen posta-truke eta dokumentazio guztia bideratzea eta artxibatzea, lehendakariak ezagutu eta ebatzi ondoren.
3. Bilkura Orokorrak zein Batzorde Iraunkorrak egiten dituzten bileren aktak, lehendakariaren ebazpenak eta Mankomunitatetik igorri behar diren dokumentuak idaztea eta baimentzea.
4. Lehendakariak agindutako eta hark ontzat emandako ziurtagiriak igortzea.
5. Toki Araubidearen legediak Toki Administrazioiko idazkari-posturako adierazten dituen gainerako zereginak.

40. artikulua.

Ikuskariak kudeaketa ekonomikoaren aholkularitzako eta ikuskaritzako zeregin kontableak egingo ditu, eta hauek dira aipagarrienak:

1. Ohiko aurrekontuaren eta, hala badagokio, ezohiko aurrekontuen aurreproiektua osatzea, eta haren kontuak prestatzea eta idaztea.
2. Mankomunitatearen kudeaketa ekonomikoa ikuskatzea, haren kontabilitateaz arduratzea, eta diru-sarreraren eta ordainketen aginduak igortzea.
3. Oro har, indarrean dagoen legediak ikuskari-posturako ezartzen dituen zereginak.

IV. KAPITULUA. KUDEAKETA EKONOMIKOA

41. artikulua.

1. Mankomunitatearen kudeaketa ekonomikoaren helburua da bere ondarea zein bere ogasuna osatzen duten baliabideak administratzea.
2. Mankomunitatearen kudeaketa ekonomikoa Batzorde Eragileari dagokio.

42. artikulua.

Mankomunitateak iturri hauetatik bilduko ditu baliabide ekonomikoak:

- a) Mankomunitateko udalerrien ekarpen proportzionalak.
- b) Beren ondarearen salmentak eta produktuak.
- c) Europar Batasunetik, Estatutik, Autonomia Erkidego eta Lurralde Historikotik edo bestelako erakunde publiko eta pribatuetatik jaso litezkeen diru-laguntzak, laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- d) Zerbitzu eta ustiapenen etekinak.
- e) Mankomunitateak ematen dituen zerbitzuen edo lanen onuradun edo erabiltzaileek ordaindu beharreko tasak, kontribuzio bereziak eta prezio publikoak.
- f) Organo zuzendariak adosten dituen kreditu-eragiketen eta antzekoen etekina.
- g) Mankomunitatearen eskumenen barruko isun eta zigorren etekina.
- h) Haren alde ezartzen diren itunpeko tributuen partizipazioak.
- i) Zuzenbide Publikoko bestelako prestazioak edo legez eskura daitezkeen bestelako diru-sarrerak.

43. artikulua.

Estatutu hauen 42.a) artikuluan aurreikusitako ekarpenak —udalerriek egiten dituztenak—, bai Mankomunitatearen beharretara bideratuak, bai zerbitzuak ezartzera eta funtzionatzera

bideratuak, populazio-irizpideen araberakoak izango dira, hau da, biztanle-kopuruaren araberakoak.

44. artikulua.

Mankomunitateak dagozkion ekarpenak ordaintzea exiji diezaioke udalerrri mankomunatu bakoitzari horretarako adierazitako epean, eta ordainketak ez badira egiten epe horren barruan, Mankomunitateak ahalmena izango du Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzeko udalerrri zordunaren ekarpena ordain dezala, dagozkion zerga kitatuen partaidetzen kargura.

45. artikulua.

Udal mankomunatuak behartuta gelditzen dira, Estatutu hauetako 43. artikuluan adierazitako moduan eta proportzioetan, Mankomunitatearen gastuak ordaintzera, Mankomunitateak hartzen dituen betebeharrengatik erantzutera, eta behar diren bitartekoak ematera Mankomunitatearen zerbitzuek behar den erregulartasunez eta eraginkortasunez funtzionatu ahal izan dezaten, betiere Bilkura Orokorrak bere helburuak betetzeko onetsitako aurrekontuen eta planen barruan.

V. KAPITULUA. INDARRALDIA

46. artikulua.

Mankomunitatearen iraupen-epea edo indarraldia mugagabea izango da, hura sortzea eragin duten helburuak iraunkorrak baitira.

VI. KAPITULUA. ESTATUTUAK ALDATZEA

47. artikulua.

Estatutuak aldatzeko proposamena egitea erakunde interesatu bakoitzari eta Mankomunitateko Batzorde Eragileari dagokie.

1. Aldaketa-proposamenean jaso behar dira hura justifikatzeko arrazoiak, aldatu edo sartu behar diren arauen testua eta indargabetzen diren arauen zerrenda.
2. Estatutuak aldatzeko, Estatutu hauen 11. artikuluan zehaztutako eta xede horretarako deitutako ezohiko bilkuran adostutako Batzar Nagusiko kide-kopuruaren gehiengo osoaren botoa beharko da.
3. Toki-erakunde mankomunatuak ere xede horretarako berariaz deitutako ezohiko bilkuran onartuko dute aldaketa, bertako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin.
4. Bilkura Orokorraren akordioak zein erakunde mankomunatuena artikuluko honetako 2. paragrafoan adierazitako puntuak jaso behar dituzte.
5. Mankomunitateko Bilkura Orokorrak erakunde mankomunatuaren borondatea aintzat hartuko du, eta, hura gauzatzeko, akordio bat egingo du, non, banan-banan, borondate hori egiaztatuko baita, eta, horrez gain, baita aldaketaren irismena eta hedadura, aldatutako edo sartutako arauen testua eta indargabetutako arauen testua ere, eta erakunde interesatuei jakinaraziko die akordioaren testu osoa eduki behar duen egiaztagiriaren bidez.

VII. KAPITULUA. MANKOMUNITATEA HANDITZEA

48. artikulua.

Mankomunitatea handitu ahal izango da beste erakunde publiko batzuk sartuz.

49. artikulua.

1. Mankomunitatea handitzeko, beharrezkoa izango da:
 - a) Interesa duen korporazioak eskatzea, eta alde zuzenetik haren osoko bilkuran gehiengo osoz onetsia izatea.
 - b) Mankomunitatearen Bilkura Orokorrak gehiengo osoz onestea. Mankomunitatean sartzeko hitzarmenean jaso behar dira bertako kide izateko ezarritako baldintza orokor eta partikularrak; besteak beste, Mankomunitatean sartu izanak sortutako gastuen ordainketa edo Mankomunitatean sartzeko kuotaren zehaztapena.

50. artikulua.

Erakunde sartu berriak —Mankomunitateko Bilkura Orokorrak onartu behar izan du hura sartzeko— ekarpen ekonomiko batzuk egin beharko ditu, eta ekarpenok Estatutuen 43. artikuluan adierazitako irizpideen arabera zehaztu behar dira, kontuan izanik erakunde berria sartzean Mankomunitateak dituen ondasunen balioa. Ondasun horiek Bilkura Orokorrak hartarako izendatutako adituen batzorde batek baliozkotuko ditu, hargatik eragotzi gabe finkatutako aldizkako edo ohiko ekarpena egitea Mankomunitateko zerbitzuen mantentze-gastuetarako.

50. bis) artikulua.

Mankomunitateko edozein udalerrik bertatik atera gura badu bere borondatez, Bizkaiko udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituen 1995eko martxoaren 30eko 3/95 Foru Arauaren 22. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa bete behar da.

VIII. KAPITULUA. DESEGITEA

51. artikulua.

Mankomunitatea desegin egingo da honako kasu hauetan:

- a) Legeak hala ezartzen badu.
- b) Haren helburuak betetzea ezinezkoa bada.
- c) Haren jarraipena interes publikoarentzat kaltegarri egiten duten ezohiko egoera batzuk gertatzen badira.
- d) Mankomunitatearen Bilkura Orokorrak eta Mankomunitateko udal gehienek hala adosten badute, hura sortzeko beharrezko quorumarekin.

52. artikulua.

1. Batzorde Eragileari dagokio aurreko artikuluan adierazitako kausak gertatzen diren egiaztatzea.
2. Proposamena Bilkura Orokorrari aurkeztuko zaio, alderdi juridikoak, ekonomikoak eta teknikoak justifikatzen dituen memoria batekin.
3. Bilkura Orokorrak desegite-proposamena aztertuko du xede horretarako deitutako ezohiko bilkuran, eta, hura onets dadin, izatezko kopuruaren bi herenen aldeko botoa beharko da, eta, nolana ere, Estatutuen 11.1 artikuluan zehaztutako kopuruaren gehiengo osoarena.
4. Toki-erakunde mankomunatuak erabakiak quorum berarekin hartuko dira lehenengo bi bilkuretan; hurrengo bilkuran, nahikoa izango da gehiengo erlatiboa.
5. Erakunde mankomunatuak desegiteko borondatea dutela agerian geratu ondoren, Bilkura Orokorrak, hartarako berariaz deitutako ezohiko bilkura batean, egiaztatu egingo du, eta aurreikuspen hauen arabera ebatziko du:
 1. Betebeharrak kitatu eta ordainduko dira, eta eskubideak eta errentak kitatu eta kobratuko dira.
 2. Horren ondoren geratzen den ondarearekin, erakunde mankomunatu eta adierazitako proportzio adina bloke osatuko dira, ahal dela antzeko ezaugarriak dituztenak.
 3. Zatiak esleitzeko, erakundeek ados egon behar dute alde aurretik.
 4. Ez bada lortzen erakunde mankomunatuak edozeinen adostasuna, Mankomunitatearen ondasunak saldu egingo dira, eta zenbateko totala kitatu egingo da 2. atalean adierazitako proportzioan banatuz.
 5. Aurreko hori ezinezkoa bada, ondasunak udalerraren edo probintziaren interesetara bideratuko dira.